



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2023ICGO0013

**Eguna:** 2023-10-31

**Ordua:** 18:00 – 18:13

**Tokia:** alkatetza

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa ..... Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez ..... Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero ..... Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez ..... Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez ..... Udal talde euskal sozialistak

#### Bertaratu ez direnak

#### Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

#### Aztergaiak

1. 2023ko urriaren 10eko akta onartzea.
2. Jabetza-erregistroko 1249 finka (landa katastroko 14-005 eta 14-132 finkak eta hiri-lurreko 8592255 katastro partzela) erostea.
3. Guztion merkataritza ekintzailtza dirulaguntzen ebazpena
4. Lehen sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzen ebazpena
5. Informazio, galdera eta eskariak.

#### Esan-eginak eta erabakiak

##### **1.- 2023ko urriaren 10eko akta onartzea.**

Maria zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran ez zelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

##### **2. Jabetza-erregistroko 1249 finka (landa katastroko 14-005 eta 14-132 finkak eta hiri-lurreko 8592255 katastro partzela) erostea.**

Alkateak azaldu du 14-005 partzela ibai-parkeko obrak gauzatzeko desjabetu beharreko partzeleteako bat dela, eta bestea (landa katastroko 14-132 finka eta hiri-lurreko 8592255 katastro partzela) DBH eta hilerri ondoan dagoen lursail bat, eta egoki ikusi dela hori ere eskuratzea, edozein azpiegitura jartzeko oso egokia delako. Ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

*“Lehena.- EROSTEA jabetza erregistroko 1249 finka (Erregistro-kode bakarra 20011000360913), inskribatuta dagoena 1761 liburukiko 30 liburuko 130 orrialdean, 191.750,94 eurotan*



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

**Bigarrena.-** Partzelaren jabeak Udalarekin duen ordaindu gabeko zenbatekoa salmenta-preziotik konpentsatzea.

**Hirugarrena.-** Alkatea baimentzea erabakia ahalbideratzeko behar diren dokumentuak sinatzeko; Jabetzaren Erregistroan guztiz erregistratu arte, zuzenketa- eta/edo argitze-eskiriturak barne.

**Laugarrena.-** Deskribatutako finka Udalaren ondasun eta eskubideen inbentarioan alta ematea. “

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **3. Guztion merkataritza ekintzaitza dirulaguntzen ebazpena**

Alkateak dirulaguntza lerro honen nondik norakoak azaldu ondoren, Toki Garapeneko batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**“Lehena.-** 4.000,00 euroko dirulaguntza onartzea, 1 1000.471.01.241.00 2023 kontu-sailaren kargura, Eider Fernandez Santos (44164567J-IFK), Mai Family and Co. enpresaren alde.

**Bigarrena.-** 4.000,00 euroko dirulaguntza onartzea, 1 1000.471.01.241.00 2023 kontu-sailaren kargura, Karmelo Calvo Marques alde (72503787J IFK) enpresaren alde.

**Hirugarrena.-** Dirulaguntzaren % 100 ordaintzea, Eider Fernandez Santos (44164567J-IFK)i, eta %70a Karmelo Calvo Marquesi (72503787J IFK), GAOn 2023ko apirilaren 13an argitaratutako dirulaguntzak arautzen dituen udal Ordenantzaren 22. artikulua jasotzen duenaren arabera.”

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

### **4. Lehen sektoreko proiektuak sustatzeko dirulaguntzen ebazpena**

Alkateak azaldu du aurten atera dela lehendabizikoz dirulaguntza lerro hau, eta baserriarren mahaiatik datorren ekimen bat dela. Eskatu diren laguntzen nondik norakoak azaldu ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

**Lehena.-** 6.000,00 euroko dirulaguntza onartzea, 3421 kontu-sailaren kargura, Flores Lizardi S.L. (B75093625), enpresaren alde.

**Bigarrena.-** 6.000,00 euroko dirulaguntza onartzea, 3421 kontu-sailaren kargura, Familia Otaño S.L. (B75158071), enpresaren alde.

**Hirugarrena.-** 6.000,00 euroko dirulaguntza onartzea, 3421 kontu-sailaren kargura, OLANO UBILLOS Y OTROS S.C. (J20787677), enpresaren alde.

**Laugarrena.-** 5.424,00 euroko dirulaguntza onartzea, 3421 kontu-sailaren kargura, Aimar Mugica Otañoren alde (72534121X).

**Bosgarrena.-** Dirulaguntzaren % 100 ordaintzea, Flores Lizardi S.L., Familia Otaño S.L., OLANO UBILLOS Y OTROS S.C. eta Aimar Mugica Otañori GAOn 2023ko apirilaren 13an argitaratutako dirulaguntzak arautzen dituen udal Ordenantzaren 22. artikulua jasotzen duenaren arabera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

## **5. Informazio, galdera eta eskariak**

Alkateak azaldu du Astigarragako Udal Talde Sozialistak aurkeztu duen mozioa, klima babeslekuen eta espazio publikoen birnaturalizazioaren ingurukoa, azaroko bozeramaile batzordean aztertuko dela, eta azaroko udal osoko bilkurara eraman.

Bestetik, azaldu du udalak urtero onartzen duela emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko egunaren inguruko adierazpen instituzionala, hori azaroaren 25ean dela eta osoko bilkura, berriz, hilak 28an. Beraz, asmoa dela adierazpen hori bozeramaile batzordera eramatea eta bertan onartzea, ez duelako zentzurik gerora onartu eta ezagutzera ematea.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko urriaren 31n

Kontxi Urdampilleta Santamaria  
Ordezko idazkaria